



# URRETXU 2030. Ekarpen txostena



AGENDA 2030  
UROLA GARAI



Urretxuko udala



URRETXU 2030.

## **Ekarpen txostena**

2023ko abendua

### **Proiektuaren zuzendaritza**

Urretxuko Udala

[www.urretxu.eus](http://www.urretxu.eus)

**Laguntza teknikoa:** Isladak aholkularitza Koop. Elk.Txikia

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako proiektua

# AURKIBIDEA

---

<b>SARRERA.....</b>	<b>1</b>
<b>URRETXUREN EKARPNEA GARAPEN JASANGARRIEN HELBURUEI.....</b>	<b>2</b>
LABURPEN MODUAN .....	2
GJH BAKOITZERAKO EKARPENA .....	2


Urretxuko udalak urteak daramatza garapen jasangarria helburu duten plan eta estrategia desberdinak lantzen. Testuinguru horretan, **2015-2022 Urretxuko Iraunkortasunerako Ekintza Plana (Agenda 21)** onartu zuen, zeinetan udalerrri jasangarriago baten alde lan egiteko 8 ildo estrategiko eta 92 ekintza definitu ziren.

Plan orokor honetaz gain, **arlotan konkretuetan eragiteko plan eta strategiak ere definitu dira azken urteotan**, eta gainera, **izaera oso desberdina duten ekimen ugari** gauzatu dira baita ere udalerrian, herritaren ongizatea eta dinamizazioa sustatzea helburu dutenak. Guzti horiek 2030 Agendak eta bertan jasotzen diren Garapen Jasangarrirako Helburuek (GJH) zehazten dituzten helmugetan eragiten dute.

Gaur egun, 2030 Agenda eta 17+ 1 Helburuak (GJH), eraldaketarako erreferenteak dira Garapen Jasangarriaren ikuspegitik eta esparru komun bat ezartzen dute norabide horretan aurrera egin nahi duten administrazio eta erakundeentzat.

Urretxuko Iraunkortasunerako Ekintza Plana (Agenda 21a) bere indarraldiaren amaierara iritsi den honetan eta udalerrian azken urtetan egin diren lanketa desberdinak oinarri hartuz, **2030 Agendaren eta GJHen ikuspegi eta helburuekin** bat datorren lanketa egiteko beharra ikusi da, maitatzean Urretxu 2030 prozesua abian jarritz.

Proiektu honen testuinguruan honako faseak burutu dira:



# URRETXU eta AGENDA 2030

Urte hauetan Urretxun jasangarritasunaren aldeko lanketa egin ondoren, hurrengo erronka 2030 urterako Urretxu inklusiboa, euskalduna, jasangarria eta modernoa izatea da, horretarako Nazio Batuek definitutako 2030 Agenda eta 17+1 Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) bat eginez eta bertan jasotako erronka eta helmugak oinarri izanik etorkizuneko norabidea markatuz.

Hori dela eta, Urretxuk Agenda 2030aren Garapen Jasangarriko Helburuei eta hauek osatzen dituzten helmugei nola eragiten dieten azaltzen da, horretarako, udal edota eskualdeko Plan, Estrategia eta ekimenak aztertu direlarik:


## LABURPEN MODUAN

Urretxuko udalak 17+1 GJHei eragiten die eta Euskadi mailan Helburu hauek barne hartzen dituzten 95 helmugetatik 90tan eragiten du, kasuan kasu maila desberdinean eragiten duelarik.

	2030 AGENDA (Nazio Batuek)	2030 AGENDA (Udalsarea 2030)	Urretxuko Udala
Garapen Jasangarriko Helburuak	17	17+1*	17+1*
Helmugak	169	95	90

\*Nazio Batuek zehaztutako 2030 Agendak ez du 18 GJH Hizkuntza eta kultura aniztasuna barneratzen. Hau zenbati lurralde eta erakundek bere gain hartu dute.

Aipatu moduan, helmuga bakoitzari neurri desberdinean eragiten zaio, ondorengo grafikoan eragite mailaren arabera banaketa egin da.



## GJH BAKOITZERAKO EKARPENAK

Hurrengo fitxetan, Urretxuk udalerrian garatutako plan, estrategia eta ekimenen bidez GJHei egindako ekarpena eta haren eraginkortasun-maila aurkezten dira. Zehazki, honako hauek hartu dira kontuan:

- **2030 Agendan eta GJHetan eragiten duen tokiko esku-hartzea.** Bertan, udalerrian azken urteotan GJHei lotuta garatu diren ekimen nagusiak identifikatu dira.
- **Adierazleak.** GJH bakoitzarekin lotutako adierazleen bilakaera modu grafikoan aurkezten da. Datua eskuratzean, adierazleak Urretxun izan duen bilakaeraz gain, adierazlearen batez besteko balioa ere adierazten da (EAEko udalerrietarako).



## HELMUGAK

Helburu honek Euskadiko udalerrientzako dituen **6 helmugetatik, Urretxuk guztietan** eragiten du:

- 1.1 Hemendik 2030era, pertsona oroentzat eta mundu osoan muturreko pobreziaekin amaitzea
- 1.2 Pobrezian, bere dimentsio guztietan, bizi diren gizon, emakume eta adin guztietako haurren proportzioa erdira behintzat jaitea
- 1.3 Babes sozialeko sistema eta neurri egokiak ezartzea, gutxieneko mailak barne, eta, pertsona pobre eta ahulen babes zabala lortzea
- 1.4 Gizon eta emakume guztiak, bereziki pobreenek eta ahulenek, pertsona guztien eskubide berdina dutela bermatzea ondorengo arloetara: baliabide ekonomikoak izatea, oinarritzko zerbitzuak eskuratzea, lurraren eta beste ondasun batzuen jabetza eta kontrola izatea, herentziarako, natura-baliabideetarako, teknologia berri egokietarako eta finantza-zerbitzuarako (mikrofinantziak barne) eskubidea.
- 1.5 Pobreen eta ahultasun-egoeretan dauden pertsonen erresilientzia sustatzea, eta klimarekin eta beste asaldura eta hondamen ekonomiko, sozial eta ingurumeneko batzuekin lotutako muturreko fenomenoaren esposizioa eta ahultasuna murriztea.
- 1.b Arau-esparru sendoak sortzea genero-gaiak kontuan hartzen dituzten pobreen aldeko garapen-estrategietan oinarrituta, pobrezia desagerrarazteko neurrietan inbertsio bizkorra egiteko.

## EKIMEN ESANGURATSUAK




- 1- **Zahartzaroa eta bakardade egoeraren diagnosia** burutu da, pobrezia edo prekaritate ekonomiko egoeran dauden adineko pertsonak kontutan izanik azterketan. Bertatik eskuhartze proposamenak egin dira.
- 2- **Zaintzaren arloan** aurrera pausuak ematen ari dira Udaletik zein eskualdetik, horrela adineko pertsonen zein mendekotasuna duten pertsonen beharrak asetuz: Urola Garaia Zaintza LAB, Urretxun Zaindu, Urretxu lagunkoia.
- 3- **Egoera zaurgarrian dauden familientzako laguntzak** ematen dira gizarte larrialdietarako laguntzen bidez: elikadura, etxebizitza, hezkuntza, energia...

## ADIERAZLEAK


### POBREZIA ETA GIZARTE BAZTERKERIA

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunak, 1.000 biztanleko (%)



### POBREZIA MAILA

Gizarte-larrialdietarako laguntzak jasotzen dituzten bizikidetzak, 1.000 biztanleko (%)





## GOSEA AMAITZEA, ELIKAGAI-SEGURTASUNA ETA ELIKADURA HOBEA LORTZEA ETA NEKAZARITZA JASANGARRIA BULTZATZEA

### HELMUGAK

Helburu honek Euskadiko udalerrientzako dituen **3 helmugetatik, Urretxuk guztietan** eragiten du:

2.1 Goseari amaiera ematea eta pertsona guztiek, bereziki pobreek eta egoera ahulean dauden pertsonak, bularreko haurrak barne, urte osoan elikadura osasuntsua, elikagarria eta nahikoa izan dezaten lortzea.

2.3 Nekazaritza-ustiapena eta eskala txikian elikagaien ekoizle direnen diru-sarrerak bikoiztea (bereziki, emakume, familiako nekazari eta abeltzainenak) besteak beste, lurretara sarbide segurua eta bidezkoa edukiz, baita beste ekoizpen-baliabide batzuetara, ezagutzara, finantza-zerbitzuetara, merkatu eta balioa eransteko aukeretara ere.

2.4 Elikagaien ekoizpen-sistemen jasangarritasuna ziurtatzea eta produktibitatea eta ekoizpena areagotzen duten, ekosistemei eusten laguntzen duten, klima-aldaketara, muturreko fenomeno meteorologikoetara, lehorte, uholde eta beste hondamendi batzuetara egokitzeko gaitasuna indartzen duten eta lurraren eta lurzorua kalitatea pixkanaka hobetzen duten nekazaritza-praktika indartsuak aplikatzea.

### EKIMEN ESANGURATSUAK




- 1- **Elikagaien bankuan** parte hartzen du Urretxuko Udalak
- 2- **Bertako ekoizleen produktuak** zabaldu eta saltzeko laguntza ematen du udalak: Diru-laguntzetan bertako produktuak erosteko baldintzak ezartzen dira, udalak ematen dituen sarietan bertako ekoizleen produktuez osatutako otarrak banatzen dira, merkaturan saldu ahal izateko bertako baserritarrei laguntza ematen zaie..

### ADIERAZLEAK

#### LEHEN SEKTOREAREN BALIO ERANTSI GORDINA

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren balio erantsi gordina (BEG), sektore guztien BEG osoarekiko (%)





## GUZTIONTZA KO ETA ADIN GUZTIETAN BIZIMODU OSASUNGARRIA BERMATZEA ETA ONGIZATEA SUSTATZEA

### HELMUGAK

Helburu honek Euskadiko udalerrientzako dituen **6 helmugetatik, Urretxuk guztietan** eragiten du:

- 3.4 Transmittitu ezin diren gaixotasunen ondoriozko heriotza-tasa goiztiarra murriztea prebentzioaren eta tratamenduaren bidez, eta osasun mentala eta ongizatea sustatzea.
- 3.5 Substantzia adiktiboaren abusuaren prebentzioa eta tratamendua indartzea, estupezafazienteen erabilera desegokia eta alkoholaren kontsumo kaltegarria barne.
- 3.6 Trafiko-istripuen ondorioz eragindako heriotza- eta lesio-kopurua murriztea
- 3.7 Sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuetarako sarbidea bermatzea, familia-plangintzakoak, informaziokoak eta hezkuntzakoak barne, eta ugalketa-osasuna sartzeko estrategia eta programetan.
- 3.9 Nabarmen jaitea produktu kimiko arriskutsuen eta airearen, uraren eta luraren poluzioaren eta kutsaduraren ondorioz eragindako heriotza eta gaixotasunak.
- 3.a Tabakoa kontrolatzeko Osasunaren Mundu Erakundearen Esparru Hitzarmenaren aplikazioa indartzea.

### EKIMEN ESANGURATSUAK




- 1- **Bide heziketa eta segurtasuna:** Hainbat urtez udaltzaingoak herriko ikastetxeetako ikasleei modu seguruan ibiltzeko ikastaroak eman izan dizkie.
- 2- **Urretxuko Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Plana (2022):** Planean proposatzen diren ekintzak bideratuta daude mugikortasun seguru eta garbia lortzera.
- 3- **Mugitur egitasmoa:** Urretxun jarduera fisikoa areagotzeko eta sedentarisinoa murrizteko ekimenak bateratzen dituen proiektua da.
- 4- **Ttipi-etapa ibilbideak:** adineko jendeak kalera irten eta lagun artean ibiltzeko eta ohitura osasuntsuak hartzeko programa.
- 5- **Adikzio eta alkoholaren prebentzio eta sexu heziketarako** programak garatzen dira udalerriko ikastetxeetan.

### ADIERAZLEAK


#### BIZI ITXAROPENA

Eustaten definizioaren arabera belaunaldi bateko emakume/gizon bat batez beste biziko den urte kopurua



#### TRAFIKO-ISTRIPUEK ERAGINDAKO LESIOAK IZAN DITUZTEN BIKTIMAK

Trafiko-istripuek eragindako biktimen ehunekoa (hildakoak, zauri arinak eta larriak), trafiko-istripuetan inplikaturako pertsonen kopuruarekiko (%)







## HELMUGAK

Helburu honek Euskadiko udalerrientzako dituen **8 helmugetatik, Urretxuk guztietan** eragiten du:

- 4.1 Haur guztiek lehen eta bigarren hezkuntza amaituko dutela ziurtatu, doakoa, bidezkoa eta kalitatezkoa izango dena, eta ikaskuntzaren emaitza egokiak eta eraginkorrak sortuko dituen.
- 4.2 Haur guztiek lehen haurtzaroan eta aurre eskolako hezkuntzan arretarako eta garapenerako kalitatezko zerbitzuak eskura ditzaketela ziurtatzea, lehen hezkuntzarako prest egon daitezen.
- 4.3 Gizon eta emakume guztiek kalitatezko prestakuntza tekniko, profesional eta goi mailakoa eskuratzeko berdintasunezko sarbidea dutela ziurtatzea, unibertsitate irakaskuntza barne.
- 4.4 Nabarmen areagotzea enplegua eta lan duina eskuratzeko eta ekintzaitzarako beharrezko gaitasunak, batez ere teknikoak eta lanbidekoak, dituzten gazte eta helduen kopurua.
- 4.5 Genero-desberdintasunak ezabatzea hezkuntzan, eta berdintasunean oinarritzen den sarbidea ematea irakaskuntzako maila guztietan eta lanbide-prestakuntzan pertsona ahulenei, desgaitasunen bat duten pertsoneri, herri indigenei eta ahultasun-egoeran dauden haurrei barne.
- 4.6 Gazte guztiak eta helduen proportzio handi batek, bai gizonak bai emakumeak, alfabetatuta daudela eta aritmetikako oinarrizko ezagutzak dituztela ziurtatzea.
- 4.7 Ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza teorikoak eta praktikoak eskuratzen dituztela ziurtatzea, besteak beste, garapen jasangarrirako eta bizi-estilo jasangarrietarako, giza eskubideetarako, genero berdintasunerako, bakearen eta indarkeriarik ezaren kulturaren sustapenerako, munduko herritartasunerako eta kultura aniztasunaren baloraziorako eta kulturak garapen jasangarriari laguntzeko.
- 4.a Haurren eta desgaitasunen bat duten pertsonen premiak eta genero-desberdintasunak kontuan hartuko dituzten hezkuntza instalazioak eraikitzea eta egokitzea, eta ikasteko ingurune seguruak, indarkeriarik gabekoak, inklusiboak eta guztientzako eraginkorrak eskaintzea.

## EKIMEN ESANGURATSUAK




- 1- **Unibertsitate ikasketak egiteko laguntzak** ematen ditu udala, eta horretarako oinarri propioak ditu.
- 2- Ikasle etorkinentzako euskara errefortzua: Urretxura etorri diren ikasleei euskara ikasteko saioak dira, oinarrizko ikasketetan aurrera egin dezaten.
- 3- **Irakurketa erraza:** irakurketan behar bereziak dituen taldea da, bai euskaraz bai gazteleraz.
- 4- Uggasatik gizarteratze eta laneratze sarea dago eta lanbideren bitartez **lan orientazioa** ematen da baita ere

## ADIERAZLEAK


### UNIBERTSITATE IKASKETAK DITUZTENAK

Unibertsitate-ikasketak dituztenen %, 18 urteko edo gehiagoko biztanleria osoaren barruan eta sexuaren arabera banatuta



### BIGARREN HEZKUNTZA GAINDITU DUTENAK

Gutxienez bigarren hezkuntza gainditu dutenen ehunekoa (%), 16 urteko edo gehiagoko biztanleria osoaren barruan eta sexuaren arabera banatuta



## HELMUGAK

Helburu honek Euskadiko udalerrientzako dituen **6 helmugetatik, Urretxuk guztietan** eragiten du:

5.1 Mundu guztian emakume eta neskatuen aurkako diskriminazio modu guztiakin amaitzea.

5.2 Emakume eta neskatu guztien aurkako indarkeria modu guztiak ezabatzea eremu publiko eta pribatuetan, sexu-salerosketa eta sexu-ustiapena eta beste ustiapen mota batzuk barne.

5.4 Ordaindu gabeko zaintzak eta etxeko lana aitortzea eta baloratzea zerbitzu publiko, azpiegitura eta gizarte-babeseko politiken bidez, eta etxean eta familian partekatutako erantzukizuna sustatuz, herrialde bakoitzean dagokionaren arabera.

5.5 Emakumeen parte-hartze osoa eta eraginkorra ziurtatzea, baita lidergoko aukera-berdintasuna ere, bizitza politikoko, ekonomikoko eta publikoko maila erabakitzaile guztietan.

5.b Teknologia instrumentalaren erabilera hobetzea, bereziki informazioaren eta komunikazioen teknologiarena, emakumeen ahalduntzea sustatzeko.

5.c Politika egokiak eta genero-berdintasuna eta emakume eta neska guztien ahalduntzea maila guztietan sustatzeko lege aplikagarriak onartzea eta indartzea.

## EKIMEN ESANGURATSUAK




- 1- **Urola Garaia III Berdintasun Plana:** plan honen bidez berdintasuneranzko gobernantza, emakumeen ahalduntzea, zaintza ekonomia feminista, ekonomia eta gizarte antolakuntza eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzak lantzen dira.
- 2- **Udal pleguetan** emakumeen presentzia baloratzen da, eta sektore feminizatuetan emakumeak ardura postuetan izatea (zuzendaritza edo lidergo postuetan) puntuatzen da.
- 3- **Emakumeen parte hartze soziopolitiko aktiboa bultzatzen da:** elkarteetan, epai mahaia, kirolean...

## ADIERAZLEAK


### BATEZ BESTEKO ERRENTA PERTSONALA

18 urteko edo gehiagoko pertsonen errenta osoa sexuaren arabera banatuta (€)



### EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen kopurua





## GUZTIEK URA ETA SANEAMENDUA IZAN DEZATEN BERMATZEA, ETA UR-BALIABIDEEN KUDEAKETA IRAUNKORRA BERMATZEA

### HELMUGAK

Helburu honek Euskadiko udalerrientzako dituen **7 helmugetatik, Urretxuk 6tan** eragiten du:

- 6.1 Ur edangarria lortzeko aukera unibertsala eta bidezkoa izan dadila lortzea, denontzako prezio egokian.
- 6.2 Saneamendu- eta higiene-zerbitzu egoki eta bidezkoetarako sarbidea lortzea denontzat.
- 6.3 Uraren kalitatea hobetzea, alegia: kutsadura murriztea; hondakin, produktu kimiko eta material arriskutsurik ez isurtzea; tratatu gabeko hondakin-uren portzentajea erdira murriztea; eta arriskurik gabeko birziklapena eta berrerabilera nabarmen areagotzea mundu osoan.
- 6.4 Nabarmen areagotzea baliabide hidrikoen erabilera eraginkorra sektore guztietan, eta bermatzea ur gezaren erauzketaren eta horniketaren jasangarritasuna, ur-gabeziari aurre egiteko eta urik ez duten pertsonen kopurua nabarmen murrizteko.
- 6.5 Baliabide hidrikoen kudeaketa integratua ezartzea maila guztietan, baita mugaz gaindiko lankidetzaren bidez ere, hala badagokio.
- 6.6 Babestea eta berrezartzea urarekin lotura duten ekosistemak, basoak, mendiak, hezeguneak, ibaiak, akuiferoak eta lakuak.

### EKIMEN ESANGURATSUAK




- 1- **Eremu diseminatuetao baserrien egoera aztertu da uraren aldetik:** nondik hartzen duten ura eta saneamendu aldetik duten sistema.
- 2- **Ura berrerabili egiten da bai berdeguneak ureztatzeko, baita kale garbiketan ere: Igerilekuan** ura dekloratzeo sistema dago, egunero uraren %5 berriztu egiten da, dekoloratu eta hori bertako berdegunea ureztatzeko erabiltzen da.
- 3- Teleirakurketa sistema dago uraren kontrola egiteko, **ur ihesak momentuan detektatzen** dira eta honen jarraipena egiten da.

### ADIERAZLEAK


#### ETXEKO UR-KONTSUMOA

Etxeko sareko ur-kontsumoa per capita (behe-hornidura), litrotan, biztanleko eta eguneko (l/bizt/egun)



#### KONTROLIK GABEKO UR-KONTSUMOAK

Goi-horniduran banatutako ur-bolumenaren eta behe-horniduran zenbatutako ur-bolumenaren arteko diferentzia, goi-horniduran banatutako ur-bolumen osoaregan (%)





## HELMUGAK

Helburu honek Euskadiko udalerrientzako dituen **3 helmugetatik, Urretxuk guztietan** eragiten du:

- 7.1 Energia-zerbitzu arrazoizko, fidagarri eta modernoetarako sarbide unibertsala bermatzea.
- 7.2 Nabarmen areagotzea energia berriztagarrien proportzioa, energia-iturri guztien artean.
- 7.3 Energia-eraginkortasunaren hobekuntzaren munduko tasa bikoiztea.

## EKIMEN ESANGURATSUAK




- 1- Udal eraikinetan eta argiteria publikoan aurrerapausuak eman dira **energia eraginkortasuna** hobetzeko: azterketak, galdaren aldaketak, luminarien aldaketak,
- 2- **Energia Komunitatea** sortzeko lehen urratsak eman dira.
- 3- **Jarduketa energetikorako udal plana (2023)**: Plan honen bidez energiaren egoera hobetu nahi da udal eraikin, argiteria eta ibilgailu parkean.

## ADIERAZLEAK


### ETXEKO ENERGIA ELEKTRIKOAREN KONTSUMOA

Etxeko energia elektrikoaren kontsumoa, biztanleko eta urteko (kWh/biz./urte)




### ETXEBIZITZA ETA ERAIKINETAKO ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA

A, B edo C kalifikazioko eraginkortasun energetikoko ziurtagiridun etxebizitza/eraikinen, efizientziaenergetikoko ziurtagiriak dituzten etxebizitza/eraikin guztiekiko (%)



### ENERGIA BERRIZTABGARRIEN EKOIZPENA

Udalerrian guztira ekoizten diren energia berriztagarrien zenbatespina (kWh/biz./urte)



EAEko batezbestekoa (2018): 2453 kWh/bizt./urte

## HELMUGAK

Helburu honek Euskadiko udalerrientzako dituen **7 helmugetatik, Urretxuk guztietan** eragiten du:

8.2 Produktibitate ekonomikoaren maila handiagoak lortzea, dibertsifikazioaren, modernizazio teknologikoaren eta berrikuntzaren artean, besteak beste, balio erantsi handia duten eta eskulan asko erabiltzen duten sektoreei arreta eskainiz.

8.3 Garapenera bideratutako politikak sustatzea, honako alderdi hauei babesa emango dietenak: ekoizpen-jarduerak, lanpostu egokien sorrera, ekintzailtza, sormena eta berrikuntza; eta mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen eraketa eta hazkuntza sustatzea, baita finantza-zerbitzuak eskuratzearen bidez ere.

8.4 Pixkanaka hobetzea munduko baliabideen ekoizpen eta kontsumo eraginkorra, eta hazkunde ekonomiko ingurumenaren degradaziotik bereizten saiatzea.

8.5 Enplegu osoa eta produktiboa eta lan egokia lortzea emakume eta gizon guztientzat, gazteak eta desgaitasunen bat dutenak barne; eta balio bereko lanarengatik soldata berdina eman dadila lortzea.

8.6 Nabarmen murriztea enplegurik ez duten eta ikasten edo gaitzen ari ez diren gazteen proportzioa.

8.8 Lan-eskubideak babestea eta arriskurik gabeko lan-ingurune segurua sustatzea langile guztientzat, langile migratzaileentzat barne, bereziki emakume migratzaileentzat eta enplegu prekarioak dituzten pertsonentzat.

8.9 Turismo jasangarria sustatzera bideratutako politikak egitea eta martxan jartzea, lanpostuak sor ditzan eta tokiko kultura eta produktuak susta ditzan.


## EKIMEN ESANGURATSUAK



- 1- **Lanbide eta Udaleko gizarte zerbitzuen artean lankidetz**a etengabea dago gizarteratze aktiboa sustatzeko enpleguaren arloan.
- 2- **Udalak Ekintzaileentzako diru-laguntzak ditu.**
- 3- **Ekintzailtza eta enpresa garapena, Enplegua, formakuntza eta laneratzea eta Turismoa** Uggasatik bideratzen da, Garapen Sozioekonomikorako Agentzia.
- 4- **Urola Garaian gizarteratze eta laneratze eskualde-sarea** martxan dago.


### UDALERRIKO BPG

Udalerriko Barne Produktu Gordina, biztanleko (€/biz.).




### LANGABEZIA TASA

Langabezian dagoen biztanleria aktiboaren ehunekoa (%) eta sexuaren arabera banatuta. Biztanleria aktiboaren barruan ez dira hor sartzen enplegua bilatzeari uzten dioten biztanleak, ezta erretiratuak ere.



### GAZTEEN LANGABEZIA TASA

Langabezian dauden gazteen ehunekoa, udalerrian guztira langabezian daudenen ehunekoaren barruan. Biztanle gaztetzatjoko dira 16 eta 24 urte bitarteko pertsonak



### HELMUGAK

Helburu honek Euskadiko udalerrientzako dituen **4 helmugetatik, Urretxuk guztietan** eragiten du:

9.1 Azpiegitura fidagarriak, jasagarriak, erresilienteak eta kalitatezkoak garatzea, eskualdeetako eta mugaz gaindiko azpiegiturak barne, garapen ekonomikoa eta giza ongizatea bultzatzeko, eta bereziki azpimarratzea guztiontzako sarbide eskuragarria eta ekitatiboa.

9.2 Industrializazio inklusibo eta jasagarria sustatzea eta, industriari enpleguari eta barne-produktu gordinari egiten dion ekarpena nabarmen handitzea, eta ekarpen hori bikoiztea gutxien aurreratutako herrialdeetan.

9.3 Industria txikiek eta beste enpresa batzuek finantza-zerbitzuak, arazoizko kredituak barne, lortzeko dituzten aukerak areagotzea, bereziki garapen-bidean dauden herrialdeetan, eta industria edo enpresa horiek balio-kateetan eta merkatuetan sar daitezela ahalbidetzea.

9.4 Azpiegitura modernizatzea eta industriari eraldatzea, jasagarriak izan daitezen. Horretarako, eraginkortasun handiagoko baliabideak erabili behar dira eta teknologia- eta industria-prozesu garbiak eta ingurumenaren ikuspegitik arazoizkoak erabiltzen direla bermatu behar da, eta herrialde guztiek dagozkien ahalmenen arabera neurriak har ditzatela lortu behar da.

### EKIMEN ESANGURATSUAK



- 1- Urretxuko Udalak **industria eremuak deskontaminatu eta berreskuratzeko** eta bertara **enpresak erakartzeko** lanketa burutzen du.
- 2- Udalak ahalegina egiten du **udalerriko industriak eta enpresak ekologikoki arduratsuak** izan daitezen, eta baliabideen erabilera arrazionala egin dezaten. Ur sarearen banaketa egiten ari dira pixkanaka eta energiaren autokontsumorako eguzki plakak ezartzen ari dira.
- 3- Uggasak (Garapen Sozioekonomikorako Agentzia) **eskualdeko industriaren lehiakortasuna, garapena eta eraldaketa** sustatzen du.
- 4- **Urola Garaiko Foro Industrialaren** bidez sektorearen lehiakortasuna eta garapena lantzen da, baita elkarlaneko proiektuak, talentua, prestakuntza, digitalizazioa, nazioartekotzea, eta erantzunkidetasun soziala ere.

### ADIERAZLEAK

Ez da GJH honi lotutako adierazlerik identifikatu Urretxuko kasurako





## HELMUGAK

Helburu honek Euskadiko udalerrientzako dituen **3 helmugetatik, Urretxuk guztietan** eragiten du:

10.2 Pertsona guztien gizarte-, ekonomia- eta politika-inklusioa indartzea eta sustatzea, beren adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa, egoera ekonomikoa edo beste edozein egoera edonolakoa izanda ere.

10.3 Aukera-berdintasuna bermatzea eta emaitzen desberdintasuna murriztea, baita horretarako diskriminaziozko legeak, politikak eta praktikak kendu egin behar badira ere, alde horretatik egokiak diren legeak, politikak eta neurriak ezartzeko.

10.4 Politikak ezartzea (bereziki, zergei, soldatei eta gizarte-babesari lotutakoak), eta pixkanaka gero eta berdintasun handiagoa lortzea.

## EKIMEN ESANGURATSUAK




- 1- Urretxun **aniztasuna eta bizikidetza lantzeko Urretxu denontzak** proiektua gauzatzen da, non hainbat ekimen burutzen diren: Urretxun bizi gara harrera eskola, ikasleen sentsibilizazio lanak, Aniztasun festa, zurrumurruen kontrako kanpainak, irakurketa errazerako taldeak, Bizilagunak programa, Sukaldanitzak, belaunaldien arteko elkarrezagutza eta aniztasun eta bizikidetza mahaiaren saioak.
- 2- **Adin txikikoen babesgabetasun egoerak** detektatzeko eta balioesteko lana burutzen da gizarte zerbitzuetatik.
- 3- **Udaletxe barruan haurren, nerabeen eta gazteen arloa sendotzeko** lanean ari da udala, horren bidez, sektore hauei bideratutako ekimenak sustatu nahi direlarik.
- 4- **Etxebiderekolaboratzen da.**

## ADIERAZLEAK


### ETXEBIZITZA BABESTUEN PARKEA

Etxebizitza babestuen ehunekoa (%), udalerriko etxebizitzaren kopuru osoarekiko



### IMMIGRAZIO TASA

Erregistratutako immigrazioen kopurua, 10.000 biztanleko eta sexuaren arabera bananduta





## HELMUGAK

Helburu honek Euskadiko udalerrientzako dituen **9 helmugetatik, Urretxuk 8tan** eragiten du:

- 11.1 Pertsona guztiek etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egokiak, seguruak eta arrazoizkoak izan ditzatela bermatzea, eta auzo marjinalak hobetzea.
- 11.2 Pertsona guztientzako garraio-sistema seguru, arrazoizko, irisgarri eta jasangarria izateko aukera ematea eta bide segurtasuna hobetzea, batez ere garraio publikoa areagotuz eta ahultasun egoeran dauden pertsonen beharrei arreta berezia eskainiz (emakumeak, haurrak, desgaitasunen bat dutenak eta adineko pertsonak).
- 11.3 Hirigintza inklusiboa eta jasangarria areagotzea, eta baita giza kokaguneen kudeaketa parte-hartzailea, integratua eta jasangarria ere.
- 11.4 Munduko kultura- eta natura-ondarea babesteko eta zaintzeko ahaleginak bikoiztea.
- 11.5 Nabarmen murriztea hondamendien ondorioz sortutako heriotzen eta horien eraginak jasaten dituzten pertsonen kopurua, eta nabarmen murriztea hondamendiek sortutako zuzeneko galera ekonomikoak.
- 11.6 Murriztea hirietako per capita ingurumen-inpaktu negatiboa, eta arreta berezia eskaintzea airearen kalitateari eta udal hondakinen eta beste hondakin batzuen kudeaketari.
- 11.7 Berdegune eta espazio publikoak, inklusiboak eta irisgarriak izateko aukera unibertsala ematea, bereziki, emakumeentzat, haurrentzat, adinekoentzat eta desgaitasunen bat duten pertsonentzat.
- 11.a Hiriguneen, hiri-inguruen eta landa-eremuen arteko ekonomia-, gizarte eta ingurumen-lotura positiboak babestea, garapen nazionalaren eta eskualdekoaren plangintza sendotuz.


## EKIMEN ESANGURATSUAK



- 1- **Aparizio auzoaren** hobekuntza nabarmena egin da azken urteetan, hala ere, oraindik hobetzekoa badago, batez ere, bertara iristeko bidean.
- 2- Herritarrek **espazio publikoan** berdintasunez parte hartzeko guneak sortu dira: Plaza estalia adin desberdinentzako jokoekin, Labeaga gunean espazio librea, Lizeo eta Jose Mari Lasa espazio librean lotura igogailuaren bitartez.
- 3- **Auzo bilerak** egiten dira bertako auzotarrek eskariak jaso eta egindako lanen berri emateko.
- 4- **Auzobusa zerbitzua** dago sakabanatutako auzoetarako mugikortasun beharrei erantzuteko.
- 5- **Ingurumen arrisku eta eraginak murrizteko** protokoloak ezartzen dira.


### LURZORU ARTIFIZIALIZATUA

Lurzoru artifizializatuaren ehunekoa, udalerriaren azalera osoaren barruan (%)




### HIRIKO PARKE, LORATEGI ETA BERDEGUNEEN AZALERA

Hiriguneko parkeek, lorategiek eta berdeguneek hartzen duten azalera (m2/biztanle)



### AUZOBUSA ERABILTZEN DUTEN BIDAIARIEN KOPURUA

Bidaiari bakoitzak hiri-autobusa zenbat aldiz erabiltzen duen zenbatzen da



## HELMUGAK

Helburu honek Euskadiko udalerrientzako dituen **8 helmugetatik, Urretxuk 7tan** eragiten du:

12.2 Baliabide naturalen kudeaketa jasangarria eta erabilera eraginkorra egin dadila lortzea.

12.3 Munduan, txikizkako salmentan eta kontsumitzaileen artean alferrik galtzen diren elikagaien kopurua erdira murriztea, eta elikagai-galerak murriztea ekoizpen- eta horniketa-kateetan, uztaren ondorengo galerak barne.

12.4 Produktu kimikoak eta hondakin guztiak ekologikoki arrazoizkoa den moduren batean kudeatzea beren bizi-zikloan, eta nabarmen murriztea atmosferara, urera eta lurrera egiten dituzten isuriak, horiek giza osasunean eta ingurumenean dituzten eragin kaltegarriak arintze aldera.

12.5 Nabarmen murriztea hondakinen sorrera, prebentzio-, murrizketa-, birziklatze- eta berrerabilpen-jardueren bitartez.

12.7 Erosketa publikoko jardunbide jasangarriak sustatzea, politika eta lehentasun nazionalekin bat etorritz.

12.8 Mundu osoko pertsonak, garapen jasangarrirako eta naturarekin bat datorren bizi-estiloa edukitzeko beharrezko informazioa eta ezagutzak badituztela bermatzea.

12.b Garapen jasangarrian ondorioak zaintzeko tresnak prestatzea eta aplikatzea, lanpostuak sortuko dituen eta tokiko kultura eta produktuak sustatuko dituen turismo iraunkorra lortzeko.


## EKIMEN ESANGURATSUAK



- 1- **Erosketa berdearen** bitartez pleguetan ingurumen baldintzak sartzen dira.
- 2- Ingurumen kudeaketarako **EMAS araua** aplikatu da Udaleko Lurralde eta hirigintza sailean, eta Garapen Jasangarrien Helburuekin lotu da.
- 3- Urteetan zehar hainbat **kanpaina burutzen dira herritarrek garapen jasangarrirako eta naturarekiko arduratsuak** diren bizi-estiloak garatzeko: klima aldaketaren inguruko astea, Fokatu Urola Garaia argazki lehiaketa, Mugikortasun astea, Hondakin prebentzio kanpaina, Erreka eguna...
- 4- Urteetan zehar **Bertatik Bertara proiektua** gauzatu da: jangeletan bertako produktuen eskaintza, bertako produktuen azoka.
- 5- **Herriguneko sortzaile bereziei** atez ate jasotzen zaizkie organikoa, errefusa eta papera/kartoia.
- 6- **Industriaguneetako enpresei** atez ate jasotzen zaizkie papera eta kartoia, egurra, hondakin inerteak eta tamaina handiko trasteak.


### ETXEKO ETA MERKATARITZAKO ZABORREN SORRERA BIZTANLEKO

Etxeko eta merkataritzako hondakinen sorkuntza, biztanle bakoitzeko (kg/biz./egun)




### ETXEKO ETA MERKATARITZAKO ZABORREN GAIKAKO BILKETA-TASA

Gaika biltzen diren etxeko eta merkataritzako hondakinen ehunekoa (%)



### INGURUMEN KLAUSULAK DITUZTEN LIZITAZIOAK

Ingurumen-klausulak jasotzen dituzten lizitazioen zenbatekoaren portzentajea, urtean argitaratutako lizitazio guztien zenbatekoarekiko (%)



## HELMUGAK

Helburu honek Euskadiko udalerrientzako dituen **3 helmugetatik, Urretxuk guztietan** eragiten du:

13.1 Klimarekin eta hondamendi naturalekin lotutako arriskuenganako erresilientzia eta horietara egokitzeko ahalmena sendotzea.

13.2 Klima-aldaketari lotutako neurriak sartzea politika, estrategia eta planetan.

13.3 Hezkuntza, sentsibilizazioa eta giza- eta erakunde-ahalmena hobetzea, klima-aldaketa murrizteko, horretara egokitzeko, bere eraginak arintzeko eta garaiz ohartarazteko.

## EKIMEN ESANGURATSUAK




- 1- Udalak 2017an onartutako **Aldaketa klimatikoaren aurkako plana** indarrean dauka eta bertan landu eta garatzen dira bai klima aldaketara arintzeko neurriak baita egokitzapenerako neurriak ere.
- 2- Ikastetxeetako ikasleekin **Eskola Agenda 21aren** testuinguruan aldaketa klimatikoaren gaia landu izan du.
- 3- **Herritarrei zuzendutako kanpainak** egin izan dira klima aldaketaren arloan.

## ADIERAZLEAK


### UDALERRIKO BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN EMISIOAK BIZTANLE ETA URTEKO

Udalerriko berotegi-efektuko gasen (BEG) t CO<sub>2</sub>b/biz./urte.  
Industria eta lehen sektorea kanpo



### UDALAREN KARBONO-AZTARNA BIZTANLE ETA URTEKO

Udalaren berotegi-efektuko gasen (BEG) t CO<sub>2</sub>b/biz./urte



### HELMUGAK

---

Helburu honek Euskadiko udalerrientzako dituen **2 helmugetatik, Urretxuk batean** eragiten du:

14.1 Mota guztietako itsas kutsadura aurreikustea eta nabarmen murriztea, bereziki, lurrean eginiko jardueren bidez sortutakoa (itsas detrituak eta elikagaien bidezko kutsadura barne).

### EKIMEN ESANGURATSUAK



1- Ibaira zaborrak joan ez daitezen neurriak hartu dira.

### ADIERAZLEAK

---

Ez da GJH honi lotutako adierazlerik identifikatu Urretxuko kasurako



## HELMUGAK

Helburu honek Euskadiko udalerrientzako dituen **8 helmugetatik, Urretxuk 7tan** eragiten du:

15.1 Lurreko ekosistemen eta ur gezaren barne-ekosistemen eta horien zerbitzuen zaintza, berrezarpena eta erabilera jasangarria bermatzea, bereziki hauena: basoak, hezeguneak, mendiak eta gunee lehorrak; hori guztia, bat etorri nazioarteko hitzarmenen bidez ezarritako betebeharrekin.

15.2 Martxan jartzea baso-mota guztien kudeaketa jasangarria, deforestazioa geldiaraztea, degradatutako basoak berreskuratzea eta basotzea nahiz basoberritzea nabarmen areagotzea.

15.3 Desertifikazioari aurka egitea, lur eta lurzoru degradatuak birgaitzea (desertifikazioek, lehorteek eta uholdeek kaltetutako lurak barne) eta lurzoruaren degradazioan eragin neutroa izango duen mundu bat lortzen saiatzea.

15.4 Ekosistema menditsuen kontserbazioa bermatzea, horien dibertsitate biologikoa barne, garapen jasangarrirako funtsezko onurak emateko duten ahalmena hobetze aldera.

15.5 Neurri premiazko eta esanguratsuak hartzea, habitat naturalen degradazioa murrizteko, biodibertsitatearen galera geldiarazteko eta mehatxatutako espezieak babesteko eta desagertu daitezela saihesteko.

15.8 Espezie exotiko inbaditzaileak sar daitezela prebenitzeko eta horiek lurreko nahiz uretako ekosistemetan dituzten eraginak nabarmen murrizteko neurriak hartzea, eta lehentasunezko espezieak kontrolatzea edo desagerraraztea.

15.a Iturri guztietatik datozen finantza-baliabideak mobilizatzea eta nabarmen areagotzea, biodibertsitatea eta ekosistemak zaintzeko eta jasangarritasunez erabiltzeko.


## EKIMEN ESANGURATSUAK



- 1- **Irimo - Santa Barbara** eremuko biodibertsitatea areagotzeko **Plana** dago eta bertan eremu bakoitzean egin beharreko lanak zehaztu dira eta aurrera eramaten dira.
- 2- Urtero Udalak lursailak erosten ditu **bertako basoak berreskuratu** ahal izateko.
- 3- **Ibai ertzetako landaredia hobetzeko**, lur horiek egonkortzeko eta ibaien egoera hobetzeko landaketak egiten dira bertako landarediarekin.
- 4- Udalerriko **landare espezie inbaditzaileak** erauzteko lanketak egin dira.
- 5- **Kutsatutako lurzoruen berreskuratzea** egin da lurzoru gehiago ez okupatzeko.
- 6- **HAPOn bidez (2021)** lurzoru hiritar eta urbanizagarrien proportzioa ez handitzeko irizpideak ezarri dira, lurzoru ez urbanizagarria gehiago babestuz.


**BABES MAILA BEREZIKO AZALERA**

Babes-maila bereziarekin babestutako portzentajea, udalrriaren azalera guztiarekiko (%)




**KUTSATUTA EGON DAITEZKEEN LURZORUAK**

Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoru-azaleraren ehunekoa (Eusko Jaurlaritzaren 4/2015 Legearen arabera), udalerriko azalera erabilgarri osoarekiko (%)



**KUTSATUTA EGON DAITEZKEEN LURZORUEN LEHENGORATZEA**

Lurzoru hondeatua eta/edo lehengoratua, etorkizuneko erabileratarako berreskuratu diren eta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen azalera (m<sup>2</sup>)



EAEko batezbestekoa (2019): 18.160 m<sup>2</sup>

## HELMUGAK

Helburu honek Euskadiko udalerrientzako dituen **6 helmugetatik, Urretxuk guztietan** eragiten du:

- 16.1 Nabarmen murriztea indarkeria-mota guztiak, eta horiei lotutako heriotza-tasak.
- 16.5 Ustelkeria eta eroskeria modu guztietan nabarmen murriztea.
- 16.6 Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan.
- 16.7 Beharrei erantzungo dieten erabaki inklusiboak, parte-hartzaileak eta ordezkatzzaileak maila guztietan hartuko direla bermatzea.
- 16.10 Informaziorako sarbide publikoa bermatzea eta oinarritzko askatasunak babestea, lege nazionalen eta nazioarteko akordioen arabera.
- 16.b Garapen iraunkorraren aldeko lege eta politika ez-diskriminatzaileak sustatzea eta aplikatzea.

## EKIMEN ESANGURATSUAK




- 1- **Udal webgunean** argitaratutako informazioa etengabe hobetzen eta zabaltzen da. Gainera, tramite katalogoa eta gardentasun atala ere badaude.
- 2- **Kode etikoa** onartuta dago udal barnean.
- 3- Udaleko WhatsApp-a dago eskuragarri herritarrentzako (500 pertsona/ partehartzaile inguru ditu). Zerbitzu honen bidez Udalerriko ekintza, kale mozketak,... inguruko informazioa helarazten da astero.
- 4- **Hainbat parte hartze foro daude udalerrian:** Euskalgintza, jaiak, Piztu gazte mahai, aniztasun eta bizikidetzak mahaia, 65+ Foroa eta aurrekontu parte hartzaileak.

## ADIERAZLEAK

### HERRITARREK PARTE HARTZEKO AURREZ AURREKO MEKANIMOEN BATZARRAK

Herritarren parte-hartzea bultzatzea helburu duten eta Tokiko Agenda 21 egitasmoarekin lotutako udal-organo presentzialek egindako bilera kopurua



## HELMUGAK

Helburu honek Euskadiko udalerrientzako dituen **3 helmugetatik, Urretxuk guztietan** eragiten du:

17.2 Garatutako herrialdeek garapenerako laguntza ofizialarekin lotutako beren konpromisoak erabat betetzen dituztela zaintzea, hainbat herrialdek hartutako honako konpromiso hau barne: diru-sarrera nazional gordinaren % 0,7 garapen-bidean dauden herrialdeen garapenerako laguntza ofizialera bideratzea, eta diru-sarrera nazional gordinaren % 0,15 eta % 0,20 artean aurrerapen txikieneko herrialdeen garapenerako laguntza ofizialera bideratzea.

17.14 Garapen jasangarrirako politiken koherentzia hobetzea.

17.18 Garapen-bidean dauden herrialdeei ahalmena sortzeko emandako babesak hobetzea, datu egokien, fidagarrien eta kalitatezkoen erabilgarritasuna nabarmen areagotzeko; datu horiek honela banakatuta egon beharko dute: diru-sarrerak, sexua, adina, arraza, jatorri etnikoa, migrazio-estatusa, desgaitasuna, kokapen geografikoa eta testuinguru nazionaletan egokitzen diren beste ezaugarri batzuk.

## EKIMEN ESANGURATSUAK




- 1- **Euskal Fondoarekin hitzarmena dauka Udalak**, Euskal Herrian Hegoaldeko instituzio, erakunde sozial eta komunitateekiko harreman solidarioen alde diharduten esperientzia lokalak biltzen dituen lankidetzarako tresna.

## ADIERAZLEAK

### GARAPENERAKO NAZIOARTEKO LANKIDETZARA BIDERATUTAKO UDAL- AURREKONTUA

Urteko udal-aurrekontutik zenbat bideratzen den garapenerako nazioarteko lankidetzara (%), urteko udal-aurrekontuaren barruan



## HELMUGAK

Helburu honek Euskadiko udalerrientzako dituen **4 helmugetatik, Urretxuk guztietan** eragiten du:

- 18.1 Hizkuntza gutxiagotua dituzten komunitateak ahaldundu eta ezagutarazi identitate desberdinak indartzeko.
- 18.4 Gutxienez hizkuntza biren erabilera praktikoa bermatuko duen hezkuntza eredu elebi/eleanitzak bultzatu, beti ere hizkuntza gutxiagotua modu eragingarrian irakasten dela ziurtatuz.
- 18.5 Eten digitala murriztu eta teknologia berriak hizkuntza guztietan, batez ere gutxiagotuetan, eskuragarri jarri.
- 18.6 Hizkuntza gutxiagotuen presentzia bermatu hedabide mota guztietan: idatzizkoak, ikus-entzunezkoak edota teknologia berrien alorrean garatutakoak.

## EKIMEN ESANGURATSUAK




- 1- Urretxuko udalak **Euskara Sustatzeko Ekintza Plan (ESEP)** desberdinak izan ditu eta bertako ekintzak aurrera eraman ditu urteetan zehar euskal hiztun aktiboak eta ahaldunduak dituen komunitatea indartzeko. **Gaur egun 2024-2034rako Plana osatzen ari da** ondorengoak lantzeko asmotan: ezagutza, erabilera, ikerkuntza, gobernantza, komunikazioa eta motibazioa.
- 2- Udal barruan nahiz udal-herritar arteko komunikazioan eta iruditegian **euskara sustatu eta indartzeko** lan larroak baditu Udalak.
- 3- **Programazio soziokultural zabala** eskaintzen da urtero udalerrian, adin tarte desberdinei zuzenduta, aniztasun kulturala sustatzen duena eta kulturartekotasuna kontutan izaten duena. Gainera, eskualdeko mahaiaren bitartez aipatutako norabidean kultur programaziorako ideia berriak ekartzen dira udalerrira.

## ADIERAZLEAK

### EUSKARAREN EZAGUTZA

Herritar euskaldunen ehunekoa (%) (ongi edo nahiko ongi hitz egiten duen; zehazki, ea gai den euskaraz elkarrizketa bat izateko)





AGENDA 2030  
UROLA GARAIA



**Urretxu**ko udala

